

2020an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.

1. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak.

Ebazpen honen xedea hauxe da: 2020an zehar, Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzen dituzten herri eragileei, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko Oiartzungo Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2019-2021erako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Oro har, dirulaguntza hauetarako aukera izan dezakete Oiartzunen kultura intereseko ekitaldiak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan.

Oiartzundik kanpoko pertsona edo erakundeen kasuan, Ordenantza Orokorrak ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Diruz laguntzen diren ekintzak irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Elkarteak sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.
- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten

elkarteek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du.

3. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak.

Ez da diru laguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Oiertzungo udalerritik kanpo gauzatzen diren ekitaldietarako.
- Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren ekitaldietarako.
- Udal sail beraren edo beste udal sail baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza edo hitzarmen baten barruan sartzen diren ekitaldiak.
- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez, baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo programa kulturalak prestatu edo alde aurreko lanak egitea xede duten ekintzak.
- Ikastaroak edo ikaslanak.

4. ARTIKULUA.- Diru laguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa.

Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta jarraian deskribatzen diren kuantifikazio irizpideak jarraituz.

4.1. Diru laguntzak emateko irizpideak

Diru laguntzak ematean, oro har, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Kultur ekintzak baloratzeko irizpideak:

Parte- hartzaile, ikusle, antolatzaile kopurua	Puntuak gehienez: 20
<100	5
100-300	10
>300	20

Aurrekontua eurotan	Puntuak gehienez: 20
0€-1500€	0
1501€-3000€	5
3001€-4500	10
4501€-6000€	15
>6000 €	20

Aurrekontuan elkartearen ekarpena	Puntuak gehienez: 20
% 20a baino gutxiago jarri du onuradunak	0
% 20 - 39 bitartean jarri du onuradunak	5
% 40 - 59 bitartean jarri du onuradunak	10
% 60 - 79 bitartean jarri du onuradunak	15
% 80 - 99 bitartean jarri du onuradunak	20

Emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimenak	Puntuak gehienez: 20
Emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartzean oreka lortzeko neurriak ikuskizunean (2 p) , ikuslegoan (2 p) eta antolaketan (2 p).	2 puntu atal bakoitzeko, gehienez 6.
Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.	2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.
Kultur ekintzan ikuspegi estereotipatuak desagerraraztea eta genero-rolak apurtzea sustatzea.	2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.
Bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeen parte hartzea errazteko berariazko neurriak hartzea (adineko emakumeak, etorkinak, alargunak, aniztasun funtzionala dutenak...)	Puntu 1 neurri bakoitzeko, gehienez 4.
Bizitza familiarra, pertsonala eta lanekoa, eta kultur ekitaldietan parte hartzea bateragarri egiteko berariazko neurriak hartzea.	Puntu 1 neurri bakoitzeko, gehienez 2.

Bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak erakartzeko ahalegina (haurrak, gazteak, emakumeak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, atzerriko jatorria duten pertsonak)	Puntuak gehienez: 10
Kolektibo 1	5
> 2 kolektibo	10

Kultur ekintza-proposamenaren kalitatea	Puntuak gehienez: 20
Aurrekontuaren zehaztasuna	4
Giza baliabideen zehaztasuna	4
Baliabide materialen zehaztasuna	4
Egitarau zehatza eta hausnartua	4
Hizlari, artista, talde edo parte hartzaileen curriculuma	4

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratu ondoren, dagokion diru partidaren gordetako dirua ekitaldi guztien artean proportzionalki banatuko da.

4.2. Aurrekontua

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 43250 € euroko izendapena eginda dago, Oñartzungo Udalaren 2020 urteko aurrekontuko 1 0801.481.334.00.01.2020 zenbakidun partidaren kontura.

4.3. Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

5. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orri orokorra.
- Erakunde eskatzailearen, pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NAREN fotokopia.
- Elkartea, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZaren fotokopia, hala badagokio.
- Eskaera egiten duen elkartea, erakundeak edo interesatuak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena.
- Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua
- Zinpeko aitorpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste dirulaguntzen ingurukoa.

6. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

7. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, epe honen barruan egin ahal izango dira: 2020ko urtarrilaren 1etik 31era.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan, Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza orokorrak 20. artikuluan aipatzen duena jarraituz.

8. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

9. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Kultura arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Kultura Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- Udal Osoko Bilkurak behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Udaleko iragarki taulan eta www.oiartzun.eus web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsitzat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oñartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru laguntzaren %80a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontuari dagokion gastua justifikatu ondoren ordainduko da. Justifikazioa egiterakoan kontuan hartuko da diru laguntza emateko orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proportzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru laguntzaren mugaraino. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantza Orokorren VIII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:
 - Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoaia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.
 - Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
 - Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
 - Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatu etako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutako en artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.
- Bereziki kultur ekitaldiei dagokionean, dirulaguntza jasotzen duten ekintzei buruzko informazioa www.oiartzun.eus orriaren bidez iragarri behar dituzte elkarrekin. Ekintza izan aurreko hilabeteko 20a baino lehenago egin behar da iragarpen hori. Udalak, gero, informazio hori hilero argitaratzen den kultur agenda elikatze erabiliko du.

11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Eskaera orri orokorra.
- b) Eginiko eta diruz lagundutako jardueraren azalpen memoria.
- c) Gastu eta diru sarreraren balantzea.
- d) Aurkeztutako justifikanteen zerrenda.
- e) Eginiko gastuaren ordainagiriak. Ordainagiri hauek, ezinbestez, diru laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru laguntzaren mugaraino. Egiaztagiriek Oiartzungo Udalaren diru laguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte.
- f) Jasotako beste diru laguntzen zerrenda
- g) Ekintzari buruzko lau argazki formatu digitalean. (Argazki hauek udalak herri intereserako helburuetarako erabili ahal izango ditu).
- h) Programa, publikazio eta kartel iragarleen bi ale. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko Oiartzungo Udala agertu beharko da jardueraren babesle moduan egingo den publizitate guztian.

Ekintzak egin ahala justifikatu ahal izango dira, gehienez ekintza bukatu denetik hiru hilabeteko epean, beti ere, hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen.

12. ARTIKULUA.- Diru laguntza itzultzea

Deialdi honetako 11. artikulua ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiartzungo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

13. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.